

LABen balorazioa, INEMen 2005eko martxoan erregistratutako langabezia zifrak direla eta

INEMek Hego Euskal Herrian martxoan erregistratutako langabezian 89.533 pertsona daudela adierazi du, hau da, aurreko hilean baino %5,3 gutxiago. Generoari erreparatzen badiogu ikus daiteke langabezi erregistratuaren jaitsiera honek langabetutzat hartutako emakumezkoengan %5,8ko jaitsiera suposatuta duela eta %4,6ko jaitsiera gizonezkoen kasuan.

Hala ere, emakumezkoek jarraitzen dute erregistratutako langabeziaren %58,2 osatzen.

Martxoko langabeziaren bilakaera positibo hau orokorra izan da lau herrialdeetan; dena den, ez da gauza bera gertatzen urtetik urterako aldaketak aztertzen baditugu.

Zehazki, Nafarroan erregistraturiko langabezia %4,7 handitu da iazko martxoarekin konparatuz eta Araban ere, urtetik urterako %1,4ko igoera gertatu da.

Beraz adi eta zain egon beharko dugu, datozen asteotan jarduera eta lan merkatuaren inkestek aipatu bilakaera egiaztatzen edo ezeztatzen duten. Edonola ere, zenbait arrazoi dago oso pozik ez agertzeko, batez ere kontuan hartzen badugu Hegoalden erregistratutako langabezia tasa orokorra, 2004ko amaieran zegoen maila berean mantentzen dela (abenduan baino 48 langabetu gehiago dago), Bitartean, 998 emakumezko langabetu gehiago dago aurten.

Bestetik, garrantzitsua da gogoratzea Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak duela gutxi onartu duela INEMen datuek ez dutela langabeziaren errealitatea zehazki islatzen. Adituen batzorde batek egindako ikerketaren ostean, elaborazio estatistikoan hobekuntzak sartzea erabaki da (Enplegurako Zerbitzu Publikoen Informazio Sistema _ SISPE). Hobekuntza hauek erregistratutako langabeziaren goranzko zuzenketa eragingo dute.

Ministerioak, erregistratutako langabeziaren osaketa arautzen duen araudia interpretatzean (1985eko martxoaren 11ko Ministro-Agindua) akatsak egiten ari direla aitortu du eta ondorioz, kolektibo batzuk justifikaziorik gabe kanpo geratzen direla. Zirkunstantzia hau larriagoa da informazioaren eguneratze faltagatik, horren ondorioz hainbat kolektibo erregistratutako langabezi zerrendatik kanpo geratu baita.

INEMek berak egindako kalkuluen arabera, okupaziorik gabeko eta Hego Euskal Herrian kokatutako Zerbitzu Publikoetarako bulegoetan lan eske dauden pertsonen ia %9, erregistratutako langabeziatik kanpo dago, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA) egiteko erabiltzen diren irizpide berberak aplikatuko balira langabetutzat hartuko liratekeen arren.

Hego Euskal Herria	2005eko martxo
<i>Eskaerak</i>	154.805
(-) Okupatuak	38.941
(-) Disponibilitate mugatua	17.790
(=) Okupaziorik gabeko eskatzaileak	98.074
(-) Langabezian EPAREN arabera	8.541

Zalantza barik, zuzenketa estatistiko hauek langabeziaren errealitatea hobeto ezagutzeko balio izango dute, hala ere, ez dira nahikoak izango, PSOEn gobernua ez duelako erregistratutako langabeziaren estatistika erregulatzen duen araudia aldatu nahi. Patronalak (CEOE eta CEPYME) eta CCOO eta UGT sindikatuek sinatutako deklarazio bateratuan, ez da baztertzen etorkizunean egungo irizpide estatistikoak errebisatu ahal izatea, baina momentuz, solaskide sozialak ez dira gai izan Madrilgo gobernuari konpromiso hori ateratzeko.

Duela 20 urteko Ministro-Agindua da eta estatistika honetatik zenbait kolektibo baztertzen ditu justifikazio logiko barik. Adibidez, hiru hilabete baino gutxiagorako enplegua eskatzen dutenak baztertzen ditu; arau honek ez dauka zentzurik kontuan hartzen badugu aldi baterako kontratuen %80k hiru hilabete baino gutxiagoko iraupena dutela.

20 ordu baino gutxiagoko lanaldia eskatzen duena ere baztertzen du. Irizpide hau guztiz inkoherentea da Bruselan zein Madrilen lanaldi partziala hedatzeko eta enplegu tasa handitzeko bultzaturiko enplegurako politikarekin.

Okupaziorik gabeko eta lehenengo lan eske dabilzanen artean erregistratutako langabezia zerrendetan zenbatzen ez diren beste kolektibo batzuk, 25 urtetik beherako ikasleak dira eta baita lanerako lanbide-prestakuntzaren ikastaroetan parte hartzen ari direnak ere. Dirudienez lanpostu batean sartzeko erakutsiriko gogoia ez da nahikoa langabezia egoera egiaztatzeko; lana eta ikasketak bateraezinak bailiran.